

2023 urteko MEMORIA



JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN FUNDAZIOA

Tel. 945 143 066 // 605 711 944

Pedro Asua kalea 2,2 (60.bulegoa)
01008, Gasteiz

<https://www.barandiaranfundazioa.eus>
gasteiz@barandiaranfundazioa.eus

EUSKO FOLKLORE URTEKARIA 57

Eusko Folklorearen Urtekaria Jose Miguel Barandiaranek sortu zuen 1921 urtean, eta Eusko Ikaskuntzaren argitalpen gisa kaleratu zen. Hala, Euskal Herrian gaur egun argitaratzen diren zientzia aldizkarien arteko zaharrena da.

51. zenbakiaz geroztik Abel Ariznabarreta da zuzendari, aire freskoa emanaz, gaiei, egileen genero eta adinari erreparatuz. Hala, XX. mende hasieran sorturiko aldizkaria garai berrietara egokitu eta euskarari presentzia handiagoa emanaz doa aurrera.

Kirolaren antropologia

Eusko Folklore Urtekariak mende bat baino gehiagoko ibilbidea dauka eta Fundazioak gaukotu egin nahi izan zuen 1921ean Jose Migel Barandiaranek sortutako aldizkari zientifikoa. Horretarako, azken urteetan gai berritzaileak landu izan dira bertan; gai zentral baten inguruko artikuluak eskatu izan zaizkie adituei alde batetik, eta aldizkariaren bigarren zatia ekarpen libreekin osatu izan da.

Bide bera jarraitu du Eusko Folklore Urtekariak 2023an eta **Kirolaren antropologiaz** jarduten du. Honakoak izango dira bertan irakurri ahal izango diren gaiak:

KIROLAREN ANTROPOLOGIA

- **Kirolaren garrantzia nazio nortasuna osatzean** (Patxi Xabier Fernandez Monje)
- **Euskal pilotako kirol-jokoak: tradizioa eta modernitatearen artean** (Oidui Usabiaga)
- **Hamelin ez den herri bateko kirolarien dantzak. Kirol jarduera eta jarduera fisikoei begirada bat zenbait nerabeen praktika eta hausnarketatik abiatutik.** (Jaime Altuna)
- **Proceso de Emplazamiento de las mujeres en el deporte vasco en la última década** (Ametz Castrejana)
- **What is a Bertsolari for Zidane? An Anthropologist Reports from San Mamés Stadium** (Mariann Vaczi)
- **Emakume pilotarien genero identitatea** (Uxue Fernandez)

EKARPENA

- **Sustabiz Fundazioa, Herri Kirolen lanketa eta transmisioa helburu** (Joseba Etxebarria)
- **Euskal gizabideaz: Barandiaran, Arizmendiarieta, Azurmendien lanketa eta transmisioa helburu** (Jon Mentxakatorre)
- **Iluminando los secretos de las tinieblas: investigación arqueológica espacial y difusión mediante réplicas virtuales 3d de las cuevas decoradas de Santimamiñe, Altxerri y Etxeberri** (Iñaki Intxaurbe)

BARANDIARAN BEKA

2023ko Barandiara Beka

Akaitz Sarasola Mugertzak eta Aintzane Cortajarena Alejosek aurkeztutako **'Gaztainondoaren etnografia bat Tolosaldean'** proiektuak jaso du 2023ko Barandiaran Ikerketa Beka. 2022ko abenduaren 30ean elkartu zen Barandiaran Bekaren epaimahaia deialdira aurkeztutako 9 lanen inguruko ebazpena emateko eta aho batez onartu zen 'Gaztainondoaren etnografia bat Tolosaldean' lanari esleitzea beka.

**Eusko
Ikaskuntzak
sortu zuen
Ikerketa Beka
1980an,
Arabako,
Bizkaiko,
Gipuzkoako
eta
Nafarroako
Diputazioekin
batera.**

**Egoera
ekonomikoa
tarteko,
2012tik
2015era ez
zen deialdirik
egin. 2016an
Eusko
Jaurlaritzaren
laguntzarekin
ikerketa beka
berreskuratu
zen.**

"Etnografia-antropologia arloko deialdi honetara aurkeztutako proposamen guztien artean hoberen garatuta dagoen proiektua da (diseinua, helburuak, hipotesiak, metodologia, bibliografia). Talde gaztea izan arren, ilusioz beteta dagoela ikusten da".

Ikasleak dira bi sarituak: Aintzane Cortajarena Alejos (Asteasu, 2000), Gizarte Antropologia graduako azken urteko ikaslea da eta Akaitz Sarasola Mugertza (Lizartza, 1999) berriz, Nekazaritza eta Basogintzako Ingeniaritza gradu bikoitzeko azken urtean dago. Biek, gaiarekin lotura zuzena dute eta diotenez, "txikitatik, erraztasun eta ohitura handia izan dugu inguruko pertsona helduekin elkarrizketan aritzeko, garai bateko kontuak eta bizimodua ezagutzeko asmoz".



Gaztainondoaren etnografia bat Tolosaldean ikerketa gaztainondoaren-kultura eta hori barne hartzen duenaren azterketa bat egiteko egitasmoa izan da. "Hutsune bat sentitzen genuen gure kulturaren hain garrantzitsua eta oinarritzkoa izan den zuhaitz eta elikagai baten inguruan, oso lan gutxi baitaude, eta apurka gaztainondo-kultura hori guztia ahanzturan erortzen ari baita. Hori dela eta, egitasmo honen bitartez Tolosaldean, gure eskualdea den horretan, gaztainondoak eta gaztainak zer nolako garrantzia izan duen aztertzea da helburu nagusia, gaur eguneko kultura horrek utzitako arrastoetan fokua jarritz. Honen bitartez, gaztainondoaren-kultura horren gaur egungo egoera aztertu nahi da ere. Gu geu Esparru zientifiko ezberdinetako kideak izateak, ikuspegi zabalagoa ematen dio taldeari, eta horrelako gai bat lantzeko oso aberasgarria eta beharrezkoa delakoan gaude. Zenbaitetan esan ohi den bezala, Etnografia diziplina anitza da, eta hori dela eta ezinbestekotzat jotzen dugu horrelako ikerketa baterako bi arlo hauek batzea".

Urtea amaitu aurretik entregatuko dute azken lana.

Barandiaran Bilduma 23

Iñaki Intxaurbek 'Ilunpeetako sekretuak argiztatzen' lanagatik eskuratu zuen 2022ko Barandiaran Beka, eta 2023an azken lana maketatu eta formatu digitalean kaleratu da, Barandiaran Bildumaren 23. zenbakia bilakatuz.

SARA ETXEA

1. Fundazioa-Udala-Museoa

Sara Etxea publikoari zabaltzea izan da Fundazioaren azken urteetako egitasmo nagusienetako bat. Hori egin ahal izateko egokitze lan batzuk egin behar ziren eta diru-laguntza eskuratu zen Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldunditik 2022an.

Fundazioak Ataungo Udalarekin (Barandiaran Museoaren jabea, eta fundazioko patronokidea) hitzarmen bat sinatu du 2023an, bisitariak jaso ahal izateko eta ondorioz bisitak antolatu dira abuztuaren 6an, 13an eta 15ean zein urriaren 15ean. Bisitari ugari bertaratu dira, Euskal

Herriko txoko ezberdinetatik: Ataungoak bertakoak ziren batzuk eta baita Etxarri, Eibar, Donostia, Bermeo, Bilbo, Ordizia, Beasain, Gasteiz, Tolosa, Lazkao zein Legazpikoak ere.

Museoko langileak dira bisita gidatzearen arduradunak, Museoan bertan hasi eta Sara Etxetik pasatuz, “ataundarraren bizipenez osatuta, haren umiltasuna aipatuz eta munduarekiko ikuspegian zentratutako bisitaldiak” egin dira, “bisitarietako emozioa eta miresmena eragiteko asmoz”.

2. Ikastetxeko urteko irteera

Urteroko bisita jaso du Sara Etxeak 2023an ere; hain zuzen ere, Ataungo ikastetxeko neska-mutilak tokia bertatik bertara ezagutzera pasatu ziren martxoaren 22an.

ATAUNIKER kultur elkarteko Jexux Aizpurua eta Jexux Goikoetxearen gidaritzapean egin zuten herri bisitan geldialdia egin zuten Sara Etxean Joxemiel Barandiaran ikastetxeko azken urteko ikasleek, haien irakasle Janire Aierberekin batera.



HAUSNARKETA PROZESUA

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak 2022an aurrera eramandako hausnarketa prozesuan hainbat ekintza proposamen jaso ziren. Horietatik batzuk egikaritu dira 2023an:

Martxan ipinitako ekimenak

1.- AHOLKU BATZORDEA

Azken urteetan Fundazioaren baitan askotan irten den ideia da Aholku Batzordea eratzearena; hain zuzen ere, Fundazioak aditu talde baten bide-laguntza izateko asmoz sortu da. Epe luzera Fundazioa bera indartzea xede nagusia izanik, bere estrategia orokorrean epe luzeko ikuspegia lantzen lagunduko du, horretarako, helburuak finkatuz eta strategiaren kontrastean eraginez.



Fundazioa osatzen duen patronatuak proposatutako norbanakoekin eratu da aipatutako Aholku Batzordea eta gogoz hasi da bere egitekoan. Lehenengo bilera uda aurretik burutu zen, online; bigarrena aurrez aurrekoa izan zen urriaren 11n, eta Sara Etxetik hurrengo bilerarako ideia ugarirekin irten ziren kideak.

2.- EUSKARABENTURA

EuskarAbenturan parte hartzearen ideia hausnarketa prozesuaren baitan sortu zen. Hain zuzen ere, Barandiaranen irudia gazte jendearen artean zabaldu beharraz hitz egin zen bertan, eta horretarako ekimen hori aukera aproposa izan zitekeela gaineratu zen. Hala, Fundazioa Ataungo Udalarekin batera EuskarAbenturako kideekin harremanetan ipini eta 2023ko ekitaldian Ataun bisitatzeko gonbita luzatuz goiz pasa interesgarria antolatu zuten.



EuskarAbentura ekimena uztailaren 16an iritsi zen Ataunera, eta Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak Barandiaranen inguruko zertzeladak eman zizkien parte hartzaileei. Uztailaren 1etik 31ra bitartean 17 urteko 140 gazte inguruk Euskal Herria oinez zeharkatu zuten, euskaraz, bertako baso, mendi eta lautadak ezagutuz eta ondo pasatuz. Maulen hasi eta Getxorako 407 kilometrotan zeharreko abenturan geldialdia egin zuten Ataunen uztailaren 16an, atsedean egunean, eta bertan, Barandiaran nor izan zen ezagutzeko parada izan zuten.


Atauneko geldialdian Jon eta Jexux Aizpurua anaien eskutik bisitaldiak egin zituzten Euskal Herriko zazpi probintzietako parte hartzaileek bai Perunezar jaiotetxera eta baita Sara Etxea bizitokira. Barandiaran Museoa ere izan ziren gazteak, ataundarraren inguruko dokumentala ikusiz, besteen artean.

3.- KATEDRA

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak martxoaren 17an Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian duen campusean eginiko Katedraren aurkezpen ekitaldi instituzionalean parte hartu zuen. Elkarlanaren fruitu da abiatu berri den Jose Migel Barandiaran Katedra: Fundazioak Eusko Ikaskuntzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Ataungo Udalarekin eta Euskal Herriko Unibertsitatearekin batera sustatua izan da.

Katedraren zuzendari den Jose Antonio Mugikaren, Josu Ozaita antropologo eta Barandiaran Bekan sarituaren eta Miren Ayerdi arkeologoaren hitzaldiekin hasi zen aurkezpena, eta ordubete inguru iraun zuen ekitaldian, gainera, parte hartu dute instituzio bakoitzeko ordezkariak: Ixone Fernandez de Labastidak (Jose Miguel de Barandiaran Fundazioko lehendakaria); Ana Urkizak (Eusko Ikaskuntzako lehendakaria); Sebastian Zurutzak (Gipuzkoako Foru Aldundia); Martin Aramendi (Ataungo alkatea); Eva Ferrereirak (Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea).

BESTELAKOAK



Jose Miguel de Barandiaran Fundazioak utzitako materiala Bizkaiko Arkeologi Museoa egon zen ikusgai 2023ko otsailaren 2tik maiatzaren 7ra bitartean. Duela mende bat Euskal Herrian arkeologia ulertzeko beste modu bat zegoela erakutsi zuten Barandiaranek, Aranzadik eta Egurenak eta haiek osatu zuten taldeak bere tokia izan zuten 'Egiptorako espedizioen eta Euskal Herriko indusketen artean'aldi baterako erakusketaren baitan.

URTEKO BILERAK

1.- Apirilaren 4ean egin zuen Fundazioaren patronatuak urteko lehenengo bilera, Sara Etxean, Ataunen.

Bertan parte hartu zutenak honakoak izan ziren: Xabier Barandiaran (Gipuzkoako Foru Aldundia), Mikel Ozkoidi (Nafarroako Gobernu), Martin Aramendi (Ataungo Udala), Ixone Fernandez de Labastida (Lehendakaria. Eusko Ikaskuntza), Jexux Aizpurua (Idazkaria. Eusko Ikaskuntza), Josemari Velez de Mendizabal (Eusko Ikaskuntza) eta Arantza Cuesta (Eusko Ikaskuntza).



2.- Manuel Lekuona

Sariketaren epaimahaian egongo beste behin ere Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa, Eusko Ikaskuntzak gonbidatuta. Bilera aurrez aurre zein online jarraitu zen urriaren 16an.



Kontaktua

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa (Idazkaritza)

Pedro Asua kalea 2,2 (60.bulegoa)
01008, Gasteiz

Tel. 945 143 066 // 605 711 944

<https://www.barandiaranfundazioa.eus>

gasteiz@barandiaranfundazioa.eus



Jose Miguel de Barandiaran
Fundazioa • Fundación

Jose Miguel de Barandiaran Fundazioa

Sara Etxea
Murkondo Auzoa 4
20211, Ataun (Gipuzkoa)

Twitter: @JMBFundazioa

Facebook: FundacionBarandiaran



Jose Miguel de Barandiaran
Fundazioa • Fundación